

www.emaus.com

E- RAL- DA- BIDE -

MERKATARITZA
ETA KONTSUMO EKIMEN
JUSTUAK ETA ERALDATZAILEAK
IDENTIFIKATZEKO ETA
AUTO-EBALUATZEKO
TRESNA, TOKIKO
ETA GLOBAL MAILAN

emaús
GIZARTE FUNDATZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL



REAITORTZA - EZ MERKATARITZARAKO - PARTEKATU BAIMEN BERAREN ARABERA 3.0. MATERIAL HAU LIBRE KOPIATZEKO, BANATZEKO ETA JAKINARAZTEKO BAIMENA EMATEN DA, BETIERE HAREN EGILEA AIPATZEN BADA ETA MERKATARITZA HELBURUETARAKO ERABILTZEN EZ BADA. DOKUMENTUEN ALDAKETARIK EGITEN BADA, BESTE ERA BATEKO DOKUMENTUAN ALDAKETARIK EGITEN BADA, BESTE ERA BATEKO DOKUMENTUA SORTZEKO EDO HORRETAN OINARRITUTA BESTE OBRA BAT EGITEN BADA, HAU BEZALAKOA LIZENTZIA ESKURATUTA BAINO EZIN DA BANATU . LIZENTZIA OSOA: [HTTP://CREATIVECOMMONS.ORG/LICENSES/BY-NC-SA/ES/EMAÚS](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/es/emaús)



KOORDINAZIOA: Amaia Ibarrondo
LAN TALDEA: Amaia Ibarrondo, Asier Arcos,
Ane Escondrillas, Assumpta Ayerdi
KOLABORATZAILEAK: Basherry Sarea / Basortu Agroekologia koop.
Bidazi Elkarte / Cristina Enea Fundazioa / Faces do Brasil / GEZKI
Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social
Lakari kooperatiba / Mugarik Gabe ONGD / Mundukide Fundazioa NESOL
Núcleo de Economía Solidaria / Saretuz / SinDesperdicio
LEGEZKO GORDAILUA: SS-1226-2017
ITZULPENA: Idoia Larrañaga
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Iban Buján
INPRIMATZE-LANA: Digitarte
Argitalpen hau doan deskargatzeko:
www.emaus.com/
<https://issuu.com/grupoemausfundacionsocial>

Babesten du:



1. Sarrera	4
2. Metodologia	5
3. Justifikazioa	8
Tresnaren helburuak eta aplikazioa	8
Proposamenaren marko kontzeptuala	9
Adierazleak definitzeko irizpideak	9
4. Analisi integraleko tresna tokiko-global mailan	10
Egituraren definizioa	10
Autoebaluazioko taulak	11
1 Taula:	11
Eragile publikoak	
2 Taula:	16
Merkatuko eta kontsumoko ekimen sozioekonomikoak	
Autoebaluazio taulen adierazleen	
puntuazioen laburpen fitxak	
1 Fitxa	22
2.1 Fitxa	24
2.2 Fitxa	25
2.3 Fitxa	27
5. Orientazioak eta emaitzen jarraipena	28
Eragile publikoak	28
Merkatuko eta kontsumoko ekimen sozioekonomikoak	29
Hobekuntzarako orientazio jardura markoak	29

1. SA- RRERA

Aurkezten dugun, *Eraldabide: Merkataritza eta kontsumo ekimen justuak eta eraldatzaileak identifikatzeko eta auto-ebaluatzeko tresna, tokiko eta global mailan*, izenburua duen argitalpena, Saskitik Herrira proiektuan kokatzen da, Emaús Gizarte Fundazioak garatua, Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren babesarekin. Aipatutako proiektu horren helburua, merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak sustatzea da, tokiko eta global mailan.

Helburua hori izanik, hasierako planteamendu bat egitea eskatzen du, merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaile bat bezala har dezakegun horren inguruan. Hain zuzen ere, tresna praktikoko dokumentu honen proposamenaren aurretik, Emaús Gizarte Fundaziotik eta beste gizarte eragile batzuen lankidetzarekin, bai Iparreko bai Hegoaldeko eragileekin, ikerketa bat garatu dugu. Ikerketa horretan, ikuspegi teoriko-praktiko batetik, merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileen inguruan, tokiko eta global mailan, proposamen teoriko bat eraikitzea posible izan da.

Ikerketa itxurako proposamen teoriko honek, Emaúsek Ekonomia Sozial eta Solidarioan, Elikadura Burujabetzan eta Bidezko Merkataritzan duen esperientzia hartzen du oinarri bezala, eta gaitasunen garapenean kokatua, merkataritzaren eta kontsumoaren eremuan, tokiko eta global mailan justuak eta eraldatzaileak izateko helburua duten ekimenetan artikulatzen eta eredu adierazten diren, printzipio multzo bat identifikatzen eta proposatzen ditu.

Merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak, tokiko eta global mailan, ikerketa parte hartzailearen elaborazio prozesuan hainbat erakundek eta gizarte eragilek parte hartu dute modu proaktibo batean, hainbat kasutan berrikuspenetik eta ekarpen teoriko eta praktikotik eta beste zenbait kasutan, ekarpen praktikotik. Gertaera honek, aipatutako proposamen teoriko horretarako balio erantsizat hartzen duguna, proposamen hori errealitatean lur-hartzea posible egiten lagundu digu. Lortutako konklusioek, bai ikerketaren garapenean bertan jasotako informazioagatik, bai ikerketa osatzen duten praktika egokien gaineko fitxetan identifikatutako mehatxuengatik eta aukerengatik, balio handiko informazioa eman digute orientazioak zein izan behar diren jakiteko, merkataritza eta kontsumo eredu bat justua eta eraldatzailea bezala identifikatu dadin.

Modu honetan, dokumentu honen planteamendura iristen gara. Tresna modura, sorburua den ikerketa osatzea jasotzen eta bilatzen du, bertan identifikatutakoak eta ondorioztatutakoak bere aplikazio erreala izatea posible eginez, horrela, merkatu eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak identifikatzen, sustatzen eta bultzatzen laguntzen duen tresna batean bihurtuz, osatzen duten eragileen auto-ebaluazioaren premisatik eta definitutako tokiko lurralde batean giza gaitasun indibidualak eta kolektiboak sortzeko azken helburuarekin.

2. METO- DOLOGIA

Aurretik adierazi dugun bezala, *Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global mailan*, ikerketaren gauzatzea ulertzen duen, prozesu osoaren balio erantsietako bat bezala hartzen dugu, baita aurkezten dugun dokumentu honek izan nahi duen tresna praktikoa osagarria ere, bi dokumentuak garatuak izan diren prozesu berdina izanik.

Ikerketaren garapen prozesuak hainbat fase edo une izan ditu. Lehenengoa, dokumentazio zentro desberdinetan informazio bilaketa bat egitea izan zen. Horretarako erabilitako hitz gakoak hauek izan ziren: gizarte berrikuntza, gizarteratzea, gizarte eraldaketako ereduak, Ekonomia Sozial eta Solidarioa, Elikadura Burujabetza, Giza Garapena, Tokiko Giza Garapena, partaidetza, bizitzaren jasangarritasuna, Bidezko Merkataritza, Kontsumo Kontziente eta Arduratsua. Ikerketaren helburuen arabera egindako informazioaren hautaketa baten ondoren, hirurogeita hamar dokumentutan oinarrituz hasi ginen lanean, literatura zientifikoko dokumentuak, txostenak, eskuliburuak eta praktika egokien gidak, besteak beste.

Azterketa dokumental honek marko teorikoa lantzen lagundu zigun, baita merkataritza eredu justu eta eraldatzaile baten printzipioak eraikitzen ere, tokiko eta global mailan. Ondoren adierazten den bezala definitu ziren:

1. **Inklusioa**
2. **Tokiko eta global mailako ingurunearekin artikulazioa**
3. **Genero ekitatea**
4. **Ingurumen jasangarritasuna**
5. **Tokiko garapen sozioekonomikoa**
6. **Kontsumo kontziente eta arduratsua**
7. **Belaunaldi arteko elkartasuna**

Bigarren atal batean, ikerketaren laburpen exekutibo bat garatu zen, oraindik konklusioen atala barneratu gabe zegoelarik eta bost entitate parte hartzaileei eman zitzaien berrikuspenera egin eta ikerketari beraien ekarpenak egiteko. Ekarpenera hauek ezinbestekoak izan ziren ikerketan jasotako puntuaren garapenerako, oinarri teorikoak eta giltza diren eragileen identifikazioa bezala, merkataritza eta kontsumo ekimen justu eta eraldatzaileen garapenerako eta jasangarritasunerako.

Modu paralelo batean, merkataritza eta kontsumo justu eta eraldatzailearen inguruko praktika egokien fitxen bilketa burutu zen. Ekimen errealean kasu bilketa honetan, guztira hamahiru eragilek lagundu zuten, bai iparraldekoak bai hegoaldekoak, informazioaren bilketarako emandako gidoi batean oinarrituz, beraien fitxak eta horien konklusioak Emaús Gizarte Fundaziora bidali zituzten. Aipatutako fitxa horietan jasotako alderdiak eta eragile bakoitzak garatutako ekimenari dagozkion gako eta mehatxu identifikatuak, elementu nagusi bezala hartu dira, dokumentu honek jasotzen duen tresna praktikoa zehazteko garaian. Era berean, berrikuspenera prozesuan eta ikerketari egindako ekarpenean parte hartu duten eragile bakoitzak egindako konklusioak ere funtsezkoak izan dira, eta praktika egokien fitxen bilketekin edota bertatik eratorri denarekin batera, *Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global mailan*, ikerketan agertzen diren konklusioen zati handiena osatzen dute.

Modu honetan, lortutako ekarpenetatik eratorritako emaitza multzoa, bai ikuspegi teoriko batetik bai ikuspegi praktikoa batetik, merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaile bat proposatzerako garaian, funtsezkoak diren elementuak aztertzea eta identifikatzea posible egin digu.

Ikerketaren elaborazio prozesua behin amaitu ondoren, dokumentu hau diseinatzeari ekin zitzaion, ikerketan jasotako identifikazioari, azterketari eta planteamenduei aplikazio praktikoa bat eskaintzeko helburuarekin, teorikoa den izaera batekin.

Modu honetan, aplikazio praktikoa duen dokumentu hau elaboratzeko prozesuak, bere diseinurako iturriak

zehazteko eta mugatzeko lehen une bat izan du, bere osotasunean hartuta eratorri egiten denaren ikerketara zedarrirituz, hau da, praktika egokien fitxekin batera. Era berean, dokumentuaren diseinurako iturri bezala kontuan hartu dira ere, ikerketaren idatzizko argitalpenean barneratu ez diren praktika egokien beste fitxak batzuk (guztira hemeretzi).

Dokumentuaren diseinua, behar dituen atal horietan behin egituratu ondoren, eragile parte hartzaile bakoitzak idatzitako praktika egokien jasangarritasunerako gakoak, mehatxuak eta aukerak bezala izendatutako enbilketa hautatua burutu zen. Ildo horretan bertan, ikerketan bertan lortutako eta, bai Emaús Gizarte Fundazioak, bai ikerketaren garapenean eta ekarpenean lankidetzan egin zuten gainerako eragileek landutako konklusioak hautatu ziren.

Bai ikerketaren, bai dokumentu praktikoa honen (lehenengo osatzeko identifikatua eta garatua) elaborazio prozesua ezaugarritzen duten prozeduren multzoaren ondorioz, tresna honentzat ondorengo balio erantsiak nabarmendu ditzakegu:

-Aurretiko identifikazio batetik abiatzen da, teorikoa den horretatik eta praktikoa den horretatik.

-Bere eraikuntza modu parte-hartzailean eta modu kontrastatuan garatu da.

-Euskarrizten duen eta bera oinarritzen den dokumentu teorikoa bat aurretik egiteak, dokumentu berriaren garapena arinagoa, praktikoa, egokiagoa eta errealistagoa izatea egin dezake, aurretiko azterketa teorikoa eta praktikoa batean oinarritzen delako, ondorioz, bere barne intenzionalitatea teorikoa edo paradigmatikoa dena gainditzera zedarrizten da.

Bere diseinurako, Eraldabide, *Merkataritza eta kontsumo ekimen justuak eta eraldatzaileak identifikatzeko eta auto-ebaluatzeko tresna, tokiko eta global mailan* dokumentuak adierazle sorta bat biltzen du. Hauek, tresna erabiltzeko asmoa duen erakunde edo entitate motaren arabera desberdindutako bi tauletan banatzen dira: alde batetik, esfera publikoaren entitatea eta beste aldetik, gizarte zibilaren ekimen sozioekonomikoa.

Era berean, taula bakoitzak analisi komunen hiru kategoria ditu: merkataritza eta kontsumo justu eta eraldatzaileak; kudeaketa eta barne antolamendua; eta ingurunearekiko erlazioa. Kategoria hauetako bakoitza, planteatutako 150 adierazleak (taula bakoitzeko 75) kokatzen diren azpikategoria desberdinetan banatzen da, zuzentzen diren erakunde motaren arabera. Eraldabiden planteatutako azpikategoriak, eta planteatutako adierazle desberdinak kokatzen diren hauek, dokumentu honek osatzen duen Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global mailan ikerketatik eta ikerketa horren garapen prozesuan identifikatutako konklusioetatik ondorioztatzen dira.

Hori horrela izanik, metodologia mailan, adierazleen formulazio zehatza, kontzeptu eta elementu gakoaren aurretiko identifikaziotik burutu da. Hauek, azpikategoria bezala jasotzen dira eta *Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global mailan* ikerketan jasotako zazpi printzipioekin identifikatzen dira. Taula bakoitzean azpikategoria guztiek garrantzia berdina ez badute ere, egoera horrek, azpikategoria bakoitzarentzat aipatutako elementuen identifikazioak, elementu horien kopuru handiagoa edo txikiagoa nabarmendu dituen moduari erantzuten dio, azpikategoria bakoitzarentzat. Modu horretan, adierazle kopuruan islatua gelditzen da eta bere pisua, taula bakoitzarentzat posible den puntuazioaren totalen.

Adierazleek islatzeko elementu gakoak, *Merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak, tokiko eta global mailan* ikerketan jasotako zazpi printzipioetan oinarrituz

KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSUA

- _Kontsumo Kontziente eta Eraldatzaile sareen sustapena
- _Kontsumo Kontziente eta Eraldatzaile taldeen sustapena
- _Partaidetza
- _Planetan barneratzea
- _Politiketan barneratzea
- _Bideratutako baliabideak
- _Entitateak
- _Bizitzaren jasangarritasuna kontuan hartzea
- _Etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartzea
- _Ekologia

INGURUMENAREKIKO ETA LURRAREKIKO ERRESPECTUA

- _Planak finkatzea
- _Politikak finkatzea
- _Finkatutako baliabideak
- _Entitateak
- _Lurra eskubideak dituen subjektua bezala
- _Agroekologia
- _Ekologia
- _Bizitzaren jasangarritasuna
- _Etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartzea

TOKIKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

- _Balio ekonomikoaren sorrera
- _Planak finkatzea
- _Politikak finkatzea
- _Finkatutako baliabideak
- _Entitateak
- _Finantzaketa formula anitzak (crowdfunding, kuotak, bonoak, trukea, elkartrukea)
- _Merkatu Sozialen sustapena
- _Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateak
- _Elikadura Burujabetzako entitateak
- _Bidezko Merkataritzako entitateak
- _Bizitzaren jasangarritasuna
- _Inter-kooperazioa

INGURUNEAREKIN ARTIKULAZIOA

- _Kokatzan diren komunitateen sendotzea
- _Ingurunean aliatuak dauden indarren identifikazioa
- _Landa garapena
- _Bizitzaren jasangarritasuna
- _Inter-kooperazioa
- _Lan komunitarioa
- _Kultura eta artea
- _Tokiko-global ikuspegia
- _Tokikoaren balioa handitzea

BELAUNALDI ARTEKO IKUSPEGIA

- _Belaunaldi arteko jarduerak
- _Planetan barneratzea
- _Politiketan barneratzea
- _Bideratutako baliabideak
- _Entitateak
- _Ezagutzen elkar trukea
- _Gazte enpleguari laguntza
- _Pertsona nagusiei laguntza
- _Bizitzaren jasangarritasuna
- _Landa garapena eta balioztatzea

INKLUSIOA

- _Inklusioko enpresen eta erakundeen sustapena
- _Politiketan barneratzea
- _Bideratutako baliabideak
- _Entitateak
- _Intersekzionalitatea
- _Inklusio planen sustapena
- _Bizitzaren jasangarritasuna kontuan hartzea
- _Ahultasunen analisia
- _Justizia soziala kontuan hartzea

GENERO EKITATEA

- _Bideratutako baliabideak
- _Finkatutako planak
- _Finkatutako politikak
- _Partaidetza
- _Genero ikuspegiaren zeharkakotasuna
- _Zaintzak kontuan hartzea
- _Bizitzaren jasangarritasuna

3. JUSTIFI- CACIÓ

Eraldabide tresna praktikoa hau, bai instituzio publikoei, bai erakunde zibilei edota produktu eta zerbitzuen kontsumoan eta merkaturatzean finkatuta dauden ekonomia-ekimenei zuzendua dago, identifikaziorako, ebaluaziorako eta finkapenerako tresna baliagarri bezala.

Metodologikoari dagokionez, tresna hau Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriak programaren proposamenean pentsatuz egina dago. Programa hau nazioarteko ekimen bat da eta bere helburua, herri bat osatzen duten erakunde zati handi bat bidezko merkataritzaren sustapenean inplikatzeko da, eta hedaturaz, kontsumo kontziente eta arduratsuko beste modu batzuen sustapenean. Nazioarteko mailan, programak bost adierazle proposatu ditu, horiengan intzidentzia egiteko eta udaletxeen, erakunde zibilen, herritarren, enpresen eta hezkuntza erakundeen, baita ostalaritzaren eskutik ere, lurralde zehatz baten praxiarekin erlazioa dutenak. Aipatutako adierazleen bidez ezarritako minimoak lortzearen bitartez, Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiria estatusa lortzen da.

Proposatzen dugun tresnak, *Eraldabide*, aurreko ikerketa osatzen eta aberasten du, ondorengo arrazoiak kontuan hartuta:

1. Bidezko Merkataritza alde batera utzi gabe, beste gizarte, ingurumen, gizarteratzeko, genero aldagaiak proposatzen ditu, lurraldearekiko lotura osoa, bere identifikazio zuzenerako, horretarako propio sortu diren adierazleetan banakatzen direnak.
2. Bidezko Merkataritza, Elikadura Burujabetza eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren praxitik zuzenean ateratako ikaskuntza teoriko eta praktikoa erortzen diren aldagaiak multzokatzen ditu.
3. Pertsonen eta komunitateen garapen integral baterako giza gaitasuna sortu nahi izatearen premisari erantzuten dio, espazio zehatz batean.
4. Izaera auto-ebaluagarria eta orientagarria du. Erabiltzen duten eragileei argia eman nahi dien tresna bat da, beraien indar-guneak eta ahuleziak beraien kabuz ikus ditzaten, merkataritza eta kontsumo

eredu justu eta eraldatzaile bat izan zitekeen horri dagokionez. Modu horretan, sendotzea edo baliabide gehiago behar dituzten alderdi horiek identifikatu daitezke.

5. Diagnostiko azkarra bezala izan nahi du, merkataritza eta kontsumoko garapen integralarekin zerikusia duten alderdiak identifikatzeko, definitutako tokiko lurralde batean.

6. Malgua da bere aplikazio aukeran, beraien ingurunean merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak sustatzeko edota bultzatzeko interesa duten eragile horientzat guztientzat baliagarri izateko diseinatua dagoelako.

Aurrerago ikusiko den bezala, auto-ebaluatuko den instituzio edo erakundearen egungo argazkia erakusten laguntzen duen adierazle neurgarri multzo bat proposatzen da, bere posizio hipotetikoari dagokionez, merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaile batzuen esparruan. Egoera “neurtzeko” bi tresna proposatzen dira: bat instituzioentzat eta bestea erakundeentzat. Tresna bakoitzak egokitzapen eskala bat du (txikitik handira), merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak bezala hartzen denaren baitan. Erabiltzaile bakoitzak betetako adierazleen baturaren bitartez lortutako puntuazioan oinarrituz, instituzio edo erakunde bakoitza eredu kokatu eta alderdi positiboak eta hobekuntzarako alderdiak ebaluatu ahal izango ditugu.

3.1 Tresnaren helburuak eta aplikazioa

Tresna bi ardatzetan egituratzen da, tresnaren erabiltzailea nor izango den horri zuzendua dagoen arabera:

Instituzio publikoa

- Helburua:
 - Herri desberdinetan dagoeneko abian dauden, merkataritza edo kontsumo eredu justu eta eraldatzaileen ekimenak identifikatzeko.
- Aplikazioa:
 - Mota honetako merkataritza eta kontsumo ereduaren alde egiten duten instituzioen artean sareen edota aliantzen sorrera sustatzea.
 - Sektore publikotik mota honetako ekimenak sustatzea.

Gizarte zibilaren ekimen ekonomikoa

- Helburua:
 - Merkataritza edota kontsumo eredu justu eta eraldatzaile bezala auto-identifikatzea.
 - Eredu justu eta eraldatzaileko kualifikaziorako autoebaluazio eraikitzailea eta orientatzailea.
- Aplikazioa:
 - Ekimena justua eta eraldatzailea bezala finkatzea.
 - Beraien ekintza politikoak KKA eraldatzaileko irizpideei erantzutea nahi duten kontsumitzaileei informazioa eskaintzea.

Tresna bi ardatzen inguruan egituratzen bada ere (instituzio publikoak eta gizarte zibilaren ekimen sozioekonomikoak), horietako bakoitzak dituen kategoriak, gehienetan, komunak dira edota bat egiten dute, bai *Merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak* ikerketaren helburutik, bai ikerketa hori finkatzen duen tresna honetatik (merkataritza eta kontsumo eredu justuak eta eraldatzaileak sustatu, tokiko eta global mailan) abiatuz, bi eragileek (administrazioak eta ekimenak) txanpon baten bi aurpegiak ordezkatzeko dituzte.

3.2 Adierazleen proposamenaren marko kontzeptuala

Ebaluazioari dagokionez, adierazleak eraiki diren kontzeptuzko markoak ondorengo ezaugarriak ditu:

Erreferentziako irizpideetan oinarritzen da. Hau da, taxonomiaren eta adierazleen eraikuntza, instituzioa eta erakundea bere identitatearen, garapenaren eta lehenetsun bezala dituen elementuen arabera auto-ebaluetzeko tresna bat bezala pentsatu zen, ez ordea, instituzio edo erakunde batzuk besteekin konparatzeko tresna bezala. Hala ere, adierazleak etorkizunean erabiltzen diren moduaren arabera, hauek hainbat instituzio edo entitateen informazio bilketa erraztuko dute, beraien artean konparatzeko helburuarekin.

Hurbilketa enpiriko bat dute, hau da, taxonomia eta adierazleak, ikerketan aztertutako erakundeek izan duten esperientziatik sortzen dira, funtzio hau planteatu, kudeatu eta ebaluatzerakoan.

Ikerketa honetan identifikatu diren kontzeptu eta aldagai desberdinak barneratzen ditu modu sintetikoan. Hauen inguruan, zein hartu behar diren kontuan eta zein neurritan adierazten saiatzen da. Ebaluatzen duen horren ikuspegitik, proposamen honek auto-ebaluazio izaera du.

3.3 Adierazleak definitzeko irizpideak

Irizpideek helburua zein den horri erantzuten diote, zer nahi dugun, lortu nahi duguna ondoen adierazten duten ezaugarri horiek kontuan hartuz.

Funtzio honetarako definitu ziren oinarritzko irizpideak, eta definitzen den adierazle bakoitzarekin batera agertu behar direnak, hauek dira:

-Koherentzia. Merkataritza eta Kontsumo eredu justu eta eraldatzaileekin.

-Intersektionalitatea. Errealitate sozial, ekonomiko, kultural, identitate disimulatuak edo gurutzatuen konglomeratu baten ordezkari diren, eredu batzuk erdigunean kokatzen dituen tresna bat da.

-Identitatea. Instituzio edo erakunde bakoitzaren adierazpen guztiek bere buruarekin bat egin behar dute. Garrantzitsua da, eragile bakoitzak ez egitea, bere instituzio edo erakundearen izaera propioari ez dagokiona.

-Egokitasuna. Irizpide honek, ingurunearen beharrak eta instituzio edo erakunde beraren beharrak kontsultatu behar ditu. Instituzioak, tokiko, eskualdeko, nazional eta nazioarteko inguruan pasatzen denaren monitoretza etengabe bat egitea eskatzen du.

-Diziplinartekotasuna. Funtzio hau diziplinarteko ikuspegi batetik landu behar da, errealiteratu gerturatzeko modu egokia bezala, berez modu honetakoa den bezala.

-Erantzukizuna - erantzukidetasuna. Bere ekintzaren ondorioak aintzat hartzea da, eta elkarrekintza egiten duen barne edo kanpo komunitateak ere ekintzaren eraginak onar ditzan saiatu behar da.

-Malgutasuna. Inguruko aldaketetara egokitzeko, askotan instituzio-dinamika baino arinago doazelako.

-Iraunkorra - jarraia. Bere jarduera ez litzateke gelditu behar, instituzio kudeaketaren edo erakundearen beraien zikloen ondorioz.

-Parte-hartzailea. Proiekzio/hedapen/interakzio funtzioak aktoreak izan behar ditu, elkarrizketa etengabe bat eta aktore guztien erabaki hartze gaitasun bat eskatzen ditu.

4. ANALISI INTEGRALEKO TRESNA TOKIKO-GLOBAL MAILAN

4.1 Egituraren definizioa:

Ondoren aurkezten dugun tresnak, bi taula desberdindu ditu, autoebaluazio hau gauzatu nahi duen **eragile motaren** arabera eta kasu honetan definitzen dira: “eragile publikoak” eta beste alde batetik “merkataritzako eta kontsumoko ekimen sozioekonomikoak”.

Modu honetan, eragile publikoei zuzendutako lehenengo taula bat aurkezten dugu (1), esfera publikoko mota desberdinetako entitateek (udaletxeek, udaletxeo sailek, mankomunitateek, tokiko garapen agentziek, etab.), esfera publiko horretatik, merkataritza eta kontsumoaren eremuan betetzen duten rolaren autoebaluazio egoki bat burutzeko. Eragile publiko desberdinek ekimenak gauzatzen diren esparrua eraikitzen dute eta horrekin batera, ezinbestekoak dira beraien jasagarritasunerako. Horrez gain, tokiko mailan aldaketa sozial erreal bat posible egiteko edo sustatzeko ezinbesteko elementuak dira. Modu honetan, merkataritza eta kontsumoaren eremuan, eragile publikoek lehentasunezko bi paper betetzen dituzte: kontsumitzaileen papera eta sustatzaile ekonomikoaren papera, lan egiten duten ingurunearekin duten erlazio horretatik.

Ildo beretik eta helburu berdinarekin, bigarren taula bat aurkezten dugu, kasu honetan, merkataritza eta kontsumo

ekimen sozioekonomikoei zuzendua (2). Ekimen sozioekonomikoak bezala ulertzen dira, bai kontsumoaren bitartez bai merkataritza edo ekoizpenaren bitartez, beraien helburuen artean merkataritza eta kontsumo justu eta eraldatzaile mota bat sustatzea duten ekimenak.

Aurreko paragrafitik ondorioztatzen den bezala, identifikatutako bi eragile hauetako bakoitzak rol desberdindu bat baino gehiago betetzen ditu, kontsumitzaile edo ekoizle ikuspegitik begiratzeko denaren arabera ekimen sozioekonomikoaren kasuan, edo kontsumitzaile edo sustatzaile ikuspegitik, eragile publikoaren papera aztertzen badugu merkataritza eta kontsumo justu eta eraldatzailean.

Tresna hau egituratzeko garaian, ahalegin bat egin da, edozein ekimen edota erakunderako identifikatzen diren esfera horiek egitura horretan jasotzen, ekimena soziala edo ekonomikoa izan. Planteamendu honen aurrean, beraien gaineko balioztatze bat gauzatzeko identifikatutako esferak ondorengoak izan dira:

- Zer egiten du?
- Nola antolatzen da ekiteko?
- Nola erlazionatzen da lan egiten duen ingurunearekin?

Eta, ondorioz, merkataritzaren eta kontsumoaren eremuetatik planteamendu hauei erantzunez, erantzunak eta modu honetan **eragile bakoitzarentzat analisi komunak** horrela finkatu dira:

1. “Kontsumo eta merkataritza justua eta eraldatzailea”: Bai merkataritza jarduera, bai jarduera kontsumitzailea, justua eta eraldatzailea bezala kontuan hartzeko gakoak diren puntuak identifikatzeko edota puntuetara bideratzeko.
2. “Kudeaketa eta barne antolaketa”: Erakunde, entitate edo ekimen bat barnera begira antolatzen den modua zuzentzeko gakoak identifikatzeko edota bideratzeko asmoz, eredu justu eta eraldatzaile batean kontuan hartzen diren elementuetara zuzenduz.
3. “Ingurunearekiko erlazioa”: Erakunde, entitate edo ekimen bat kanpora begira eta bere ingurunearekin antolatzen den modua zuzentzeko gakoak identifikatzeko edota bideratzeko helburuarekin, eredu justu eta eraldatzaile batean kontuan hartzen diren elementuetara zuzenduz.

Tresna honen egitura behin definitu denean, *Merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak, tokiko eta global mailan*, ikerketan identifikatutako elementu desberdinen analisi kategoria bakoitza, mota horretako ereduaren sustapenerako gakoak hornitu da.

4.2 Autoebaluazioko taulak

1. TAULA ERAGILE PUBLIKOAK

1.1. KONTSUMO ETA MERKATARITZA ERALDATZAILEA: KONTSUMITZAILE ROLA

		EZ / EZ DUGU IDENTIFIKATU	HORRETAN ARI GARA	BAI
		BALORAZIOA		
INKLUSIOA	Zure gertuko inguruan, gizarteratzean lan egiten duten gizarteratze enpresak edo erakundeak existitzen al dira?	I	II	III
	Zure erakundeak mota honetako enprekin zerbitzuren bat kontratatua al du?	I	II	III
TOKIKOA ETA GERTUKOA	Zure inguruan tokiko ondasun/zerbitzu/ elikagai ekoizleak al daude?	I	II	III
	Zure erakundeak mota honetako pertsona edo enpresa ekoizleei erosketak egiten al dizkie, erakunde bertako sail desberdinek garatutako/ospatutako jardueretarako?	I	II	III
INGURUMEN JASANGARRITASUNA	Zure erakundeak, bere lan instalazioetan, hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko guneak jartzen al ditu (udaletxeko bertako langileentzat)?	I	II	III
	Zure inguruan bilketako eta berrerabiltzeko gizarte enpresak al daude?	I	II	III
	Zure erakundeak mota honetako enpresa batekin lankidetzaz hitzarmen bat edo akordio bat al du, hondakinak berrerabiltzeko?	I	II	III
TOKIKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA	Zure erakundeak erosketa publikoko politika bat al du tokiko ekimen txikien alde?	I	II	III
GENERO EKITATEA	Zure erakundeak ekimen ekonomikoen eta sozialen identifikazio bat burutzen al du, beren baloreen artean Genero Ekitatea jasotzen duten horiena?	I	II	III
	Zure erakundeak zaintzen ekonomia lantzen duten edo bizitzaren jasangarritasuna kontuan hartzen duten, emakumez osatutako ekimen ekonomikoen lehentasuna aztertzen al du?	I	II	III
		GUZTIRA KATEGORIA		
		30		

**1.2.
KUDEAKETA
ETA BARNE ANTOLAKETA**

		VALORACIÓN		
INKLUSIOA	Zure erakundeak gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen laneratzea sustatzeko neurriak al ditu?	I	II	III
	Zure erakundeak espazio formalak al ditu, gizarteratzea lantzen edota gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonekin arreta zuzena burutzen duten, inguruko elkarte edota erakundeekin?	I	II	III
PARTAIDETZA ETA BARNE ARTIKULAZIOA	Zure erakundeak, azken urtean, bere langileentzat formazioa eskaini al du ondoren adierazten diren materiekin erlazioatutako gaietan?:			
	Hiritarren partaidetza	I	II	III
	Ekonomia solidarioa	I	II	III
	Elikadura burujabetza	I	II	III
	Genero ekitatea	I	II	III
	Ingurumen jasangarritasuna	I	II	III
	Kontsumo kontziente eta arduratsua	I	II	III
	Erakunde-kultura horizontala eta ekitatiboa	I	II	III
	Bidezko merkataritza	I	II	III
	Belaunaldiarteko jarduerak	I	II	III
Zure erakundeak instituzioko sail desberdinen arteko aldiko koordinaziorako espazio zehatzak al ditu, hiritarren partaidetzaren sustapenarekin erlazioatutako gaiak lantzeko, tokiko mailan?	I	II	III	
Zure erakundeak lana eta familia bateratzeko neurriak al ditu?	I	II	III	
Zure erakundeak, erakunde barnera begira, kudeaketa garden baterako bitartekoak edo planak al ditu?	I	II	III	
Zure erakundeak pertsona guztien partaidetza ekitatiboa errazten al du, kudeaketa sail bakoitzaren finkapen estrategikoan?	I	II	III	
Zure erakundeak sail bakoitzeko pertsona guztien informaziorako eta partaidetzarako espazio formalak al ditu, beraien garapenean bertan?	I	II	III	
Zure erakundeko kontratazio politikak, kontratatuta dauden pertsonen egonkortasuna posible egiten al du?	I	II	III	
INGURUMEN JASANGARRITASUNA	Zure erakundeak ingurumen jasangarritasun plan bat al du bere jarduerarako?	I	II	III
	Zure erakundeak ingurumen gaien inguruko sentsibilizazio jarduerak burutzen al ditu?	I	II	III

GENERO EKITATEA

Zure erakundeak, zaintzen ekonomiara ekarpenak egin edo bizitzaren jasangarritasuna kontuan hartzen dituen, lan eta bizitza bateratzearen aldeko neurriak al ditu?

I II III

Zure erakundeak barrura begirako kontzientziarako ekintzak sustatzen al ditu, genero ekitatearen inguruan?

I II III

GUZTIRA KATEGORIA

63

1.3. INGURUNEAREKIKO ERLAZIOAK: SUSTATZAILE ROLA

INKLUSIOA

BALORAZIOA

Zure erakundeko kontratazio pleguetan, ahulenak diren pertsonen gizarteratzean lan egiten duten, Ekonomia Sozial eta Solidarioko, Elikadura Burujabetzako eta Bidezko Merkataritzako enpresen edo ekimenen kontratazioan, lehentasunik eta diskriminazio positiborik kontuan hartzen al du?:

- Gizarteratzeko enpresak
- Kooperatiba txikiak
- Irabazi asmorik gabeko ekimen ekonomikoak
- Entitate juridikorik gabeko ekimen solidarioak
- Beste mota bateko ekimenak (Enpleguko zentro bereziak, etab.)

I II III
I II III
I II III
I II III
I II III

Zure erakundeak, jarduera ekonomiko osoari dagokionez, gertuko inguruan dagoen ezkutuko ekonomiaren pisua identifikatua al du?

I II III

Baiezkoa denean, zure erakundeak ezkutuko ekonomia ikustera emateko bideratutako jarduera motaren bat sustatzen al du?

I II III

TOKIKO ARTIKULAZIOA

Zure erakundeak kontuan hartzen al du elementu estrategiko bezala, elikagaien edota zerbitzuen eta hauen merkataritzaren erlazioatutako eragile sozial eta ekonomiko desberdinekin partekatutako espazioen sustapena?

I II III

Zure erakundeak beste administrazioekin artikulazioa sustatzen al du, elikagaien edota zerbitzuen tokiko ekoizpenarekin eta hauen merkataritzarekin erlazioatutako gaien inguruan?

I II III

Zure erakundeak formazio prozesuen edota pertsona guztientzat irekitako topaketa eta komunikazio espazioen eskaintza sustatzen al du, ekoizpenaren eta kontsumoaren artean konfiantza eraikitzeko helburuarekin?

I II III

Zure erakundeak espazio formalak sortzea sustatzen al du, beste tokiko eragile eta herritarrekin politika publikoen ko-eraikuntzarako?

I II III

**INGURUMEN
JASANGARRITASUNA**

Zure erakundeak lankidetza garapenaren sustapena kontuan hartzen al du, tokiko eremuan merkataritza eta kontsumo justu eta eraldatzailearen alde lan egiten duten beste tokiko eragileekin?

I II III

